

50 urte geroago

Miravalles-El Redín: nafar
ikasle eskukada eder bat

2016 Mai 16

50 urte geroago, **Iruñeko 6 familiek imajinatu zuten ikastetxeak 2.000 ikasle eskolatuak ditu gaur egun ikasturte bakoitzean**, bi urtekoen ikasgelatik hasita Batxilergo azken ikasturteraino (17 urtekoak).

Miravalles-El Redín-eko ikasgeletatik **nafar ikasle eskukada eder bat igaro da dagoeneko**. Aurten

zorioneko daude, **ikastetxearen 50. urteurrenaren ospakizuna** dela eta.

Zentroaren **Zizur Nagusiko egoitzan izan da erakunde ekintza.**

Kiroldegia bete-beterik egon da urteurrena ospatzeko hara bertaratu direnekin.

Ekintzara Iruñeko ingurune sozial guztietako ordezkariak heldu dira, **baita Nafar Gobernuako Lehendakaria, Uxue Barcos, zeini Jesus M^a Ezpondak, El Redin-eko zuzendariak, eta Elena Izquierdok, Miravalles-ekoak, harrera egin dioten.**

Ekintzaren erdigunea **familia sustatzaileei egin zaien omenaldia**izan da, baita, El Redin-eko zuzendari izana eta orain **Fomento de Centros de Enseñanza-ren zuzendariorokorra den Joan Curcó-ren hitzaldi bat.**

Ekitaldian, ikastetxearen sortzearen arrazoiak gogoratu dira, hala nola **hezkuntza pertsonalizatuaren alde egindako apustua**, hura izan baita arrakastaren ardatz nagusia, familia haien abentura gaur egun nortasun ezaugarritzat mantendu dadin.

Ekitaldiaren bitartean **oroitzapenezko bideo bat** aurkeztu da ere 50 urte hauetan ikastetxeak izan dituen **protagonista batzuk azalduz**: zuzendari, guraso, lehengoak eta gaurkoak, irakasleak – jubilatutakoak eta gaurkoak, ikasle – gizaseme nahiz emakume- ohiak eta gaurkoak.

Gainera, erakusketa bat agerian jarri da **argazkiekin**; denek gozatu ahal izan dute haietaz, ikasle ohiak batez ere.

Ospakizunak ikasturtearen hasieran hasi ziren dagoeneko **Iruñeko Katedralean meza bat ospatuz**, eta beste ekitaldi bat El Redín-eko

egoitzan. Aurrez ikusia dago ere bilera bat Madrilen ikasle ohiekin, non oroitzapenezko liburu bat aurkeztuko den.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/50-urte-geroago/](https://opusdei.org/eu-es/article/50-urte-geroago/) (2026 Mar
10)